

2021eko apirilaren 30a

Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldia: "Bienvenidos a Chechenia", David France zuzendariarena, Amnesty International sariaren irabazlea

Donostia.- Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldiko epaimahaikoak David France zuzendariaren "Bienvenidos a Chechenia" film luzeari eman dio saria. Berdintasunaren aldeko borroka eta LGTBI kolektiboaren bazterketaren aurka egin du apustu epaimahaikoak.

Checheniar Errepublikak orientazio sexualagatik erabilitako bortizkeria latza erakusteagatik eman diote saria. Jazartzen dituztenen babes falta azaltzen da; herrialdetik alde egin beharrean gertatzen dira batzuetan beren senideekin; helburu gisa identifikatuak dira, eta estatuko aparatu parapolizialen helburu bihurtzen dira. Era berean, giza eskubideak defendatzen dituztenak ageri dira, biktimei babesa bilatzen laguntzen, baita beste herrialdeetara babesa eskatzen eta arrisku berari aurre egin beharrean ere. Zinta muturreko arriskutan filmatuta dago; alabaina, horrek ez dio kentzen kalitate teknikorik, eta ikuslea harrapatuko duen erritmoa dauka.

Jaialdia ostiralean hasi zen, eta gaur arratsaldean amaituko da, ospakizun batekin, 18:00etan, Viktoria Eugenia antzokian. Ospakizun horretan, banatuko dute Amnesty Internationalen saria. Aurtengo ikurra "Argi Ohola" eskultura da, Koldobika Jauregi artistarena. Argizaiol tradizionaletan inspiratuta dago; zurezko apaingarri antropomorfoak ditu, eta hiletetan erabiltzen zituzten kandelak eramateko. Aldi honetan, Iñigo Aranburuk emango du saria.

Sari hau ematez gain, Amnesty International presente egon da Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian "Emakumeak borrokan" erakusketarekin, zeina ikusgai egon baita apirilaren 15etik hona Alderdi Ederreko liburutegi nagusian. Erakusketa ibiltari bat da herri batean baino gehiagotan izan dena, eta hartan erakusten da gure garaiko 12 emakumeren istorio eredugarria, nola saiatu diren euren aktibismoarekin mundua era baketsuan aldatzen.

/// AMAIERA

Amnesty International Euskadi - Prentsa-arduraduna

Juan Carlos Giménez

medios.euskadi@es.amnesty.org

Telf., 94 694 59 85 Móvil 602 216 346

Dokumentuak eta prentsa oharrak

www.es.amnesty.org

Giza eskubideen alde mundu osoan. Bakearen Nobel Saria 1977an. Herri-onurakoa deklaratu (1981eko uztailaren 31ko Ministro Kontseiluaren Akordio bidez)

KOMUNIKATUA



AMNESTY INTERNATIONAL
Euskadi

Bertako taldeak:

Ibáñez de Bilbao, 2, 2º A
48001 BILBO
E: bilbao@es.amnesty.org

Callejón de San Bartolomé, 5
20009 DONOSTIA
Tel.: 943 46 30 91
gipuzkoa@es.amnesty.org

Nueva dentro, 20, bajo
01001 GASTEIZ
Tel.: 945 25 94 38
vitoria-gasteiz@es.amnesty.org